

PRENTSA OHARRA

Guggenheim Urdaibai Stop plataformak eta kultur eragileek: “Ez gure izenean!” manifestuarekin bat egiten duten 1000 sinadura baino gehiago bildu dituzte Guggenheim Urdaibai proiektuaren aurka.

Guggenheim Urdaibai Stop plataformak eta Euskal Herriko kultur munduko dozenaka eragilek –zinemagile, idazle, margolari, musikari, eskultore, antzerkigile, dantzari, akademiko eta bestelako sortzailek– *1000 sinadura baino gehiago* bildu dituzte Guggenheim Urdaibai proiektuaren aurkako manifestua babestuz Gehienak euskal sortzaileak dira; beste batzuk, Estatuko eta nazioarteko kultur esparruko ahotsak.

Sinadura bilketarako erabili den manifestuak, **“EZ GURE IZENEAN!”**, argi uzten du kulturaren izenean ezin dela natura kaltetu, eta erakundeei arduraz eta gardentasunez jokatzeko eskatzen die.

Urdaibaiko ingurune naturala: ez da negoziagarria

Sinatzaileek elkartasuna adierazi diote **Guggenheim Urdaibai Stop** mugimenduari, eta gogorarazi dute Urdaibai, UNESCOk izendatutako Biosferaren Erreserba dela:

“Artearen eta kulturaren izenean ezin dugu onartu ingurune natural pribilegiatu hau arriskuan jartzea. Kultur eragileok izan behar dugu gure ahotsa altxatzen lehenak.”

Proiektuak **flora eta fauna anitzaren gaineko arrisku nabarmena** ekarriko luke, eta horrek oposizio zabal eta sendoa eragin du kultur komunitatean.

Arduragabekeria ekonomikoa eta gardentasun falta

Sinatzaileek galdera zehatz eta oinarrizkoak jarri dituzte mahai gainean:

- Zein da proiektuaren **epe ertain eta luzeko kostua**?
- Nori kenduko zaio dirua?
- Nola eragingo dio kultur sektoreari —bereziki euskaraz sortzen dutenei—?

Eusko Jaurlaritzak Guggenheim Bilbaori urtero **8 milioi euro inguru** bideratzen dizkiola gogoraraziz, sinatzaileek uste dute bigarren museoaren finantzatzea beste jarduera askoren kaltetan egingo litzatekeela. Horregatik, erakundeei **kontuak argitaratzeko**, eta erabaki horien ondorioak “zintzotasunez eta gardentasunez” azaltzeko eskatu diete.

Proiektuak ez die kultur komunitatearen beharrei erantzuten

Kultur eragileek urteak daramatzate erakundeei egoera honen berri ematen:

- sortzaileen prekarietatea,
- sorkuntza proiektu propioetarako babes falta,
- epe luzeko politika publikoen gabezia.

Inbertsio handiak eraikin eta azpiegiturretan egin diren arren, **edukiaren sorkuntzan eta kultur ekosistemaren indartzean eragina hutsaren hurrengoia izan dela** azpimarratzen dute.

“Kulturaren erabilera gero eta gehiago ari da turismora mugatzen; ez da ulertzen identitate kritiko eta kolektiboak sortzeko tresna gisa.”

Horregatik, kulturak eskatzen ez duen museo bat pribilegiatzea “estrategia oker eta antidemokratikoa” dela salatu dute.

Zientzialarien eta herritarren beste adierazpen garrantzitsuak

Prentsa ohar honek bi erreferentzia garrantzitsu ere jasotzen ditu, instituzioek gaur arte alde batera utzi dituztenak:

- **372 zientzialarik** 2025eko irailaren 18an sinatutako manifestuak ohartarazi zuen Urdaibaiko oreka ekologikoaren aurkako arrisku larriak daudela, eta proiektua “ingurumen-jasangarritasunaren kontra” doala.
- **Agirre Lehendakaria Center** erakundea Busturialdean garatzen ari den **1.000 narratibako entzute-prozesuak, uztailaren 23an publiko egin duen lehen txostenean**, argi erakusten du: herritarrek bestelako etorkizun-eredu bat nahi dute, komunitatearen ongizatea eta lurraldearen babesa oinarri dituen eredua. Guggenheim Urdaibai proiektuarekiko kontrakotasuna izugarria da.

Bi ekimen horiek oso argiak dira: **ez da soilik kultur sektorearen alarma**, baizik eta komunitate zientifikoaren eta herritarren ahots zabalaren eskaera sendoa.

Eskaera zuzena: proiektuaren etetea

Kultur eragileek eta plataformak ondorio berbera partekatzen dute:

Guggenheim Urdaibai proiektua bertan behera uztea.

Eta eskari zuzen bat egiten dute: erakunde publikoek **entzun, errespetatu eta kontuan har ditzatela** kultur komunitatea, herritarrak eta ikertzaile adituak.

“Euskal Herriko biztanleontzat kultura propioa, bizia eta aberatsa sustatuko duten politikak behar ditugu. Ez gure izenean egingo den museo bat.”